

PRENTSA DEIALDIA

UPV/EHU-KO IKASLE KONTSEILUAREN HAUTESKUNDE EZTABAIDA

Puede leer la nota en castellano [aquí](#)

2024ko azaroaren 19a, asteartea

12:00

Leioa-Erandioko Areako Areto Nagusia - Bizkaiko Campusa

Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Ikasle Kontseiluak komunikabideak gonbidatzen ditu Errektoretzarako hautagaiak diren Eva Ferreira eta Joxerramon Bengoetxearen arteko hauteskunde-eztabaidara. Ekitaldia 2024ko azaroaren 19an izango da, eta UPV/EHUko Ikasle Kontseiluak moderatuko du.

Parte-hartzaileak:

- Eva Ferreira
- Joxerramon Bengoetxea

Moderatzailea: Iñigo Ugedo, UPV/EHUko Ikasle Kontseiluko lehendakaria

Eztabaida hau aukera paregabea izango da bi hautagaiak UPV/EHUren etorkizunari buruz dituzten proposamenak eta ikuspegiak bertatik bertara ezagutzeko. Ikasleentzat funtsezkoak diren gaiak landuko dira, hezkuntza-kalitatea, baliabideen kudeaketa eta ikasleen parte-hartzea barne.

Eztabaidaren blokeak:

1. Aurkezpena
2. Gai-multzoa: Gobernantza
3. Gai-multzoa: Prestakuntza eta kalitatea
4. Gai-multzoa: Azpiegiturak eta baliabideak
5. Gai-multzoa: Ikasleen parte-hartzea
6. Galdera-erronda
7. Urrezko minutua

Komunikabideak:

Eztabaida zuzenean zabalduko da EHUtik eta ondoren unibertsitatearen webgunean egongo da eskuragarri. Hedabide guztiak gonbidatzen ditugu ekitaldi honetara.

Eztabaida osteko adierazpenak:

Eztabaida-osteko adierazpenak egingo dira Areto nagusitik.

Eztabaidari buruzko informazio guztia:

<https://www.ehu.es/es/web/ikasle-kontseilua/debate-electoral>

Streaming bidezko emanaldia:

<https://ehutb.ehu.es/live/58c6ba57f82b2b0e3f8b4567>

Kontaktua:

ikasle.kontseilua@ehu.es

94 601 2448

X: @IkasleKontseilu

Instagram: @ikaslekontseilu

<https://www.ehu.es/es/web/ikasle-kontseilua>